


# ABERRI EGUNA 2004



*1004 – 2004 Antso IIIa. Handia*



**UDALBILTZA**<sup>®</sup>  
EUSKAL HERRIKO UDAL ETA HAUTETSIEEN BILTZARRA

## **EUSKAL HERRIARENGAN SINESTEN DUGULAKO**

Gure erakunde hau sortu zenetik urtero bezala, UDALBILTZA<sup>®</sup>k itxaropen, ilusio eta konpromisoz ospatuko du Aberri Eguna. Euskal Nazioarengan sinesten dugula eta hari atxikitzen gatzaizkiola irmotasun osoz berresteko eguna. Eskubide oro pertsona ororentzat izan behar duela errespetatuz eta horren alde lan eginez eta ziur jakinda Herri bat ez dela aske izango herri hori osatzen duten pertsonak aske ez badira; baina, aldi berean, ziur jakinda herritarrak ez direla aske beren "izaera kolektiboa" ere, bere Nazioa, ez bada aske eta haren izatea bera ere ukatu egiten baldin bada.

2004. urte honetan ospatzen ari gara Iruñeko Antso III. "Handia" koroatua izan zeneko milurtekoa. Bere garaian "Euskaldunen Jauna" izenaz izan zen ezaguna. Leku honetan bertan -eta horregatik gara gu, gaur, hemen- hemendik aste batzuetara oroitarri bat inauguratuko dugu haren ohorez. Hemen bere erregetza-aroko aztarna nabariak utzi zituelako eta hemendik ikusten ditugula Euskal Herria izenaz ezagutzen dugunaren lurraldeak.

Antso III. Handiaren milurtekoaren ospakizunean hainbat ekitaldi intelektual eta kultural burutuko ditugu. Horien guztien helburua Euskal Herriaren kontzientzia kolektiboa eta memoria historikoa aberastu eta sendotzea izango da, izan den pertsona eta garai historiko garrantzitsuenetako baten eskutik. Garai batean errealitate izan eta gaur egunean lortu beharreko amets gisa ikusten dugun Nafarroako Erresumak euskal herritar oro biltzeko duen balio sinbolikoa gogoan izan eta azpimarratzeko bildu gara leku honetan.

Oroitzapen-ekitaldi honek herri aske izan gineneko historia-une harekin bat egiteko aukera ematen digu euskaldunoi, geure usadio eta legeen arabera antolatuak bizi ginenekoa, euskaraz elkar ulertuz eta bere inguruan ziren Herriak aurrez aurre tratatzen zituena, inolako mendekotasun eta inperialismorik gabe, eta herri haiek ere errespetatu egiten zutenekoa eta "Ahaide Nagusi"tzat zutenekoa. Euskaldunok Historiaren hasieretatik gara eta Euskal Herria errealitate historikoa da, orainaldi eta etorkizuna duena.

XX. mendearen bigarren zatian sarri askotan "gerra hotzak" eta "blokeen politikak" estaltzen zituen gatazka eta gerrak agerian geratzen ari diren une historikoa ari gara bizitzen.

Mundua indarkeria anker, itsu eta justifikaziorik gabekoaren zartadak ari da jasaten eta horren adibide garbia gaur hilabete hurbil ikusi ahal izan dugu Madrilén. Eta horren guztiaren aurrean, berriro ere, esan behar dugu indarkeriarik eza, elkarrizketa, distentsioa, Herrien askatasuna eta haien garapen orekatu eta bidezkoa direla Bake eta Justiziazko elkarbizitzarantz eramango gaituzten bide bakarrak.

Era berean, egun gutxi barru hamar herrialde sartuko dira Europako Batasunean eta bihotz osoz agurtu nahi ditugu. Baina horrekin batera adierazi behar dugu Europako Batasunak jakin egin behar duela bere baitan euskalduna bezalako Herriak hartzen ere, moderno eta garatuak izanik, bere etorkizuna askatasun, solidaritate eta Europako gainerako Herri guztiekin lankidetzan erabakitzeko duen eskubide demokratikoa lortzearen bidetik bere nortasuna garatu nahi baitute.

Euskadin gure etorkizunerako ilusio eta itxaropenez betetako uneak ari gara bizitzen. Garrantzi handiko eztabaidak garatzen ari garelakoan gaude, eta horietatik aterako diren ondorioek oinarrituko dituztela etorkizuneko gure elkarbizitza eta garapena. Berriro diogu Giza Eskubideen errespetua (bizitzeko eskubidea, bakoitzak ditugun ideiangatik jazarpenik edota mehatxurik ez jasatea, indarkeriarik eza, biktimei merezi duten aitortzea eta ordaina ematea, presoan eta hauen senitartekoen eskubideak...); elkarrizketa eta, azken batean, Euskal Herriak askatasunez eta modu libre eta demokratikoan Autodeterminazio Eskubidea gauzatzea direla gure inguruan ditugun Herri eta errealitateekin askatasunez eta solidaritatean elkarrekin bizitzeko oinarriak.

Izan ere, askatasun-sistema batean ordenamendu juridikoak euskal herritarren borondatearen adierazpen legitimoa izan behar du, legeek herritarren zerbitzura egon behar dute, hauen borondatearen menpe. Horregatik, funtsezko oinarri demokratiko moduan aldarrikatzen dugu euskal herritarren gehiengoaren borondatea, bakean eta prozesu demokratikoen bidez legeaz azaldua, aitortu eta errespetatu dezatela Espainiako eta Frantziako estatuek.

Bestalde, sarri askotan adierazi izan dugu indarkeria eta Euskal Herriaren eraikuntza nazionala erabat eta guztiz bateraezinak direla; eta bitartekoak eta helburuak ardatz bat beraren inguruan harilkatuak daudela: ekinbide politiko erabat demokratikoan. Gure herriak tinko eskatzen du indarkeria adierazpen guztiak behin betiko desagertu daitezela.

Euskal Herriari premiazko zaio bake eta demokrazian oinarritutako prozesu bati, estrategikoa eta behin betirakoa izango den prozesu bati ekitea, bere baitan daraman izaera politikoko gatazka historikoa gainditzeko bideari ekiteko balioko diona.

UDALBILTZA<sup>®</sup>k, erakunde hau osatzen dugun euskal hautetsiok, gure erantzukizuna geure gain hartzen dugu. Gure Herriaren aurrean dugun erantzukizuna. ETAk berea hartu behar du. Ausarta izan dadila eta bere buruari begiratu diezaiola. Orain arte beti izan duen jarrera, gainontzekooi botatzea erruak eta erantzukizunak, aspaldi agortua da. Gaur, inoiz baino areago, buru argiak eta ausardia politikoak atera behar dute nagusi.

Udal hautetsi moduan eta euskaldun moduan, sinesten dugu badela Herri bat, Pirinioetako bi aldeetan bizi dena. Gauden leku paregabe honetatik argi eta garbi ikusten dugu hori.

UDALBILTZA<sup>®</sup>k Euskal Herriaren lurraldetasunaren testigantza ematen jarraituko du, Europako Herrien artean nortasun propioa duen Herri honen eraikuntza nazional eta soziala sustatuz eta sakonduz.

Nahi dugu euskal lurra benetan osoa eta bakarra izan dadila. Eta, jakin badakigu ere, zazpi lurraldeetan bultzatzen ari garen prozesuek nazio-kontzientziaren garapenean, erabaki-erritmoetan eta haietara borondatez atxekitzeko erritmoetan neurri ezberdinak eskatuko dituztela.

Eskua luzatua dugu Giza Eskubideen errespetuan, demokrazian eta askatasunean oinarrituta Herri hau baketu eta normalizatzeko egin nahi den prozesu orotan laguntzeko.

Euskaldunak garelako, Euskal Herria badela sinesten dugulako...

**GORA EUSKADI ASKATUTA!**

Hondarribian, 2004ko apirilaren 11ean